

Ibarren, 2024eko agorrilaren 28ko Aita Jean-Marie Ruspilen predikua

Egun hemen gira, batasunaren eta esperantxaren beilari.

Mixel ekarri duen familiari so egin dezagun : Mixel bera, bere familia biziaren lekuko izan da, Graxana amarena, Arño aitarena, amatxi eta haurrideena.

Familia etxaldeko uztatik xuhurki bizi zen, gogor eta elgarrekin lan egin behar zen.

Mixelen apezteko eskolatze xedearen aintzinean, aitak nola ihardetsi zuen badakigu bai ta ere nola sosari buruzko aterabide baten atxemaiteko, amatxi Donapaleurat joan zen oinez.

Iraultza ondoko denbora zen...zoin nahasia zen, fedeari atxikia egon nahi zuenarentzat.

Hala ere, Mixelek, familia batua eta beldurgabea izaitzearen zoriona ezagutu du, bistatik sekulan galdu gabe, fede azkarra eta ximplean errotoa den esperantxa.

Familia gogo bateko lehen itxura hunek, gure familien oraiko biziari buruz galdezkatzen gaitu. Egoera arrunt desberdinean, onart dezagun, usu, batasunaren beiratzea neke zaiela. Ezkontza kinka txarrean da eta bere iraupena azkarki jorratua. Zonbat haur eta gazte baden, azkar den maitasun etsenplu gabezia !

Eta gizartearen bizia, mindurik gertatzen da.

Hemen, Ibarren, gure otoitzetan, gure familien, senar-emazte gazte eta heien haurren ekartzen ikas dezagun, eta lan egiten, gure leku xumeetan, batasunaren alde.

Garakotxeko Mixelen ildotik urrunago goazen. Eskolak bururaturik, Kanbon apez izanik denbora labur batez, Betarramen segitu du eta bere bizia han bururatu.

Tokian berean, erlijio familia sortu nahi zuen apez eta fraireekin, baita ere ikusmolde desberdinak zituen bere apezpikuarekin, egin ahal guziak egin ditu batasunaren beiratzeko.

Garakotxeko Mixel, fede azkarra eta segurra zuen gizona zen eta ber mementoan, gogo onez, bere tokiko mugen ez gainditzea onartzen zuen.

Jondoni Pauloren hitzetaz orroitz gaiten : "jauntz urrikalmendua, onezia, apaltasuna, eztitasuna, pazientzia. Elkar jasan zazue, eta barka, batek bestearen kontra zerbait balu. Jaunak barkatu dauzuen bezala, barka zuek ere. Eta oroz gainetik, jantz maitasuna, hau baita batasunaren lokarririk hobereana."

Munduan gairi bezala, gure diozesan ere, batasunaren ezagutzeko, gure Elizak badu bide egiteko, ez giristino Familia desberdinen artean baizik, bainan gure tokiko Eliza barnean ere, gure parroketan. Gure ikus moldeak ideiak, desberdinak izaiten ahal dira. Berriki erresumako hauteskunde garaian ikusi dugun bezala bai ta ere gure diozesan izan den anaikar bisitan : Mila arrazoin baditugu berex egoiteko bai, bainan apostoluak adiarazten daukun umiltasun eta eztitasunak, bakean bizitzeko eta batasunaren atxikitzeo nahikundeant atxikitzen gaitu.

"Zatozte nereganat, zamaren pean akiturik zabiltzaten guziak" erraiten dauku Jesusek Ebanjelioan.

Beilari gisa, egun, bere gomitari ihardesten dakogu, hor gira Jainkoari gure eta gure haurrideen zamen eskaintzeko. Mixel Sainduaren bitartekotasunaren bidez. Badakigu zoin garaian eta zoin egoeran bizi izan den bere aitamekin : zamaren pean akiturik zabiltzaten zirenetaik ziren, gabezia, Eliza biziarentzat iraultzaren ondorioak. Egun gure zamak deitzen dira : eritasun, dolu, aintzin aipatu familia nekeak, profesionalak, laborantzakoak, kredituen pizuak, erosteko ahalmena, klima aldaketak... bakotzak berari doakiona emenda dezake. Eta nolaz ez aipa orai, Betarrameko fraile familiak ekartzen duen zama ?

Hain segur, lehenik, gure aintzineko batzuk egin abusuen berri hedatuz, kasetek, irratiek, telebistek, sare sozialek eman presio handiari pentsatuko duzue.

Bainan egiazko zama da biktimek ekartzen dutena eta biktimak egon direnak heien bizi osoan : Jainkoaren amodioa, eztitasuna ezagutarazi behar ginuenean, zama pizu horren pena jasanarazi diegu eta batzurentzat, fedearen galtzera eraman ditugu.

Orduan, Jesusen "Zatozte nereganat" gomita hori, lehengo eta oraiko zamen pean dabiltzan denentzat da.

Jesusen hitz berberen erabiltzea galdegina zauku, urriki handia zor diegulakotz eta eginak izan diren abusuak eta horien larritasuna ezagutzen dugulakotz. Bide hortan engaiatuak gira, gu elizgizon Betarramixtak.

Beste ildo batzutan, bide berdina hasi beharra da eta giren Ibarreko beilariak, gure inguruan Ebanjelioko Jesusen hitzen partekatzerara eta segitzera gomit gira, bihotzez umil eta ezti den Jesusek hitzeman pausuaren agertarazteko.

Baina nor ote gira kargu minbera hunen segurtatzeko ? Ez gira ez Isaie eta profetak baino prestatuagoak. Alta Jainkoak galdera pausatzen dauku : "Nor igorriko dut? Nor ukanen dugu mezulari ?» Jondoni Paulok zion ere : "Jainkoak maitatu eta bere herri saindu izaiteko hautatu zaituztenaz geroz". Eta hemen, ez duguia entzuten oraino, inguratzen gaituzten mendien oihartzunean, Garakotxeko semearen "Huna ni"... Bere segidan eta berak bezala, gure "Huna ni" entzunarazten segi dezagun, bizi giren toki guzietan, batasunaren eta esperantxaren mezulari izaiteko, gure familietan, bizi eta lan tokietan, zamaren pean akiturik zabiltzatenen dei eta oihuak entzuten ditugun tokietan.

Egun, eukaristia huntan bereziki, Garakotxeko Mixel bitartekari, Jainkoak, gure alaitasun eta pena guzietan, gure aintzekotasunarekin, gorputz bakar batez juntatzen, biltzen gaitu. Gure otoitzak entzuten dituen Jainkoaren baitan, gure fede eta esperantxa ezar dezagun.

Mixel Sainduaren segidan, "Huna ni" erran dezakogun bere mezulari izaiteko.

Eta BETHI AINTZINA !

Nous sommes aujourd'hui pèlerins d'unité et d'espérance, regardons du côté de Garakotxea le foyer qui a porté Michel : lui-même a témoigné de la vie de sa famille, sa mère Gratianne et son père Arnaud, sa grand-mère, ses frères et sœur. La famille vivait chichement du produit de la petite ferme, il fallait travailler dur et ensemble. Nous savons comment le papa avait répondu à Michel qui envisageait d'aller aux études pour devenir prêtre et comment la grand-mère avait marché jusqu'à Saint-Palais afin de régler la question économique. Les temps post révolutionnaires étaient compliqués quand on voulait rester fidèle à sa foi. Malgré tout, Michel a connu le bonheur d'une famille unie et courageuse, ne perdant jamais de vue l'espérance enracinée dans une foi simple mais solide.

Cette première image d'unité familiale interroge la vie présente de nos familles. Dans un contexte tout à fait différent, reconnaissons qu'elles ont souvent bien du mal à garder l'unité. Le mariage ne fait plus l'unanimité et sa durée est malmenée. Que d'enfants et de jeunes privés d'un amour solide ! Et la vie de la société s'en trouve altérée. Ici, à Ibarre, apprenons à porter dans nos prières nos familles, les jeunes foyers et les enfants, et à travailler à nos modestes places en faveur de l'unité.

Allons plus loin sur le chemin de Michel Garicoïts. Après ses études, devenu prêtre du diocèse, exerçant brièvement son ministère à Cambo puis, le reste de sa vie, à Bétharram, il s'est débattu pour préserver l'unité à la fois sur place dans son groupe de prêtres et de frères avec lequel il voulait constituer une famille religieuse, et également avec son évêque qui n'avait pas les mêmes points de vue que lui. Michel Garicoïts était un homme à la foi robuste et convaincue, mais il acceptait volontiers de ne pas dépasser les bornes de sa position. Rappelons-nous les paroles de saint Paul dans la deuxième lecture : « revêtez votre cœur de tendresse et de bonté, d'humilité, de

douceur, de patience, supportez-vous mutuellement et pardonnez. Par-dessus tout cela, qu'il y ait l'amour : c'est lui qui fait l'unité dans la perfection ».

Notre Eglise, dans notre propre diocèse comme par le monde, a du chemin à faire pour connaître l'unité, pas seulement dans la diversité des confessions chrétiennes, mais aussi à l'intérieur de notre Eglise locale, de nos communautés paroissiales. Nos opinions, nos idées, peuvent être différentes, nous l'avons vu récemment avec la période électorale dans le pays comme avec la visite fraternelle de notre diocèse : nous avons mille raisons pour rester divisés, mais l'humilité et la douceur suggérées par l'apôtre nous conduisent à vouloir garder l'unité et vivre dans la paix.

« Venez à moi, vous tous qui peinez sous le poids du fardeau » nous disait Jésus dans l'évangile.

En pèlerins, nous répondons aujourd'hui à son invitation, nous sommes là pour présenter au Seigneur nos fardeaux et ceux de nos frères, par l'intercession de saint Michel. Nous savons à quelle période et dans quel contexte il a vécu avec ses parents : ils étaient bien de ceux qui peinaient sous le poids du fardeau, la pauvreté, les conséquences de la Révolution pour la vie de l'Eglise. Aujourd'hui nos fardeaux ont pour noms : maladies, deuils, difficultés familiales déjà évoquées, professionnelles, agricoles, poids des crédits, pouvoir d'achat, changement du climat... chacun ajoute ce qui le concerne. Et comment ne pas évoquer le fardeau que notre famille religieuse de Bétharram doit porter actuellement ? Sans doute penserez-vous d'abord à cette grosse pression des journaux, radio, télé, réseaux sociaux qui n'ont pas manqué d'étaler les abus commis par certains de nos aînés. Mais le vrai fardeau est porté par ceux qui en ont été victimes et qui le sont restés durant toute leur vie : là où nous devons leur révéler la tendresse de Dieu, nous leur avons infligé la lourde peine de ce fardeau et pour certains nous les avons conduits à perdre la foi.

Alors, le « venez à moi » de Jésus s'adresse à toutes ces personnes qui peinent sous le poids du fardeau passé et présent. Il nous revient même de leur adresser ces mêmes mots de Jésus parce que nous leur devons une grande compassion et parce que nous reconnaissons les abus commis et leur gravité. Nous sommes engagés sur ce chemin, nous les religieux bétharramites. A d'autres niveaux, le même chemin est à entreprendre, et, les pèlerins d'Ibarre que nous sommes, les paroles de Jésus dans l'évangile nous invitent à les partager autour de nous et à les suivre pour manifester le repos promis par Celui qui est doux et humble de cœur.

Mais qui sommes-nous pour assurer cette mission délicate ? Nous ne sommes pas plus préparés qu'Isaïe et les prophètes. Pourtant le Seigneur nous pose la question : « Qui enverrai-je ? Qui sera notre messager ? » Et saint Paul nous disait aussi « vous avez été choisis par Dieu, vous êtes ses fidèles et ses bien-aimés ». Et puis, ici, n'entendons-nous pas encore comme un écho des collines tout autour, le « Me voici » du fils d'Ibarre Garakotxea ? A sa suite, comme lui, continuons à faire entendre nos « me voici » pour être messagers d'unité et d'espérance partout où nous vivons, dans nos familles, nos lieux de vie et de travail, partout où nous entendons les cris et les appels de ceux qui « peinent sous le poids du fardeau ».

Aujourd'hui, particulièrement en cette eucharistie, par l'intercession de Michel Garicoïts, le Seigneur nous rassemble et nous unit en « un seul corps », dans toute notre diversité, avec toutes nos peines et nos joies. Mettons notre foi et notre espérance en Lui qui entend nos prières. A la suite de saint Michel, disons-lui « me voici » pour être ses messagers. Eta beti aintzina allons de l'avant !